



+Gorliz

Pet-friendly



ELKARREKIN GOZATZEKO HELMUGA



Gorliz zure maskotarekin

Gorliz leku ezin hobe da zure txakurrarekin batera gozatzeko. Natura eta itsasoa uztartzen dituen herria, turismo arduratsu eta dog-friendlyaren alde egiten duena.

Bere hondartza, itsasargiaren ondoko paseoak eta labarrak zain izango dituzue une paregabeak partekatzeko.

Gida honetan, pet-friendly ibilbideak eta aholku praktikoak aurkituko dituzu, zu eta zure maskotak **ongi etorriak** senti zaitezten.

Ongi Etorri




Welcome



Bienvenue



GORLIZ, DONDE CADA INSTANTE DEJA HUELLA.



Bizkaiko kostaldeko txoko honetan zure lagunik onenarekin une bikainak partekatzeko guneak aurkituko dituzu.

Itsaso ondoko ibilaldia



Gozatu zure lau hankako lagunarekin itsas ertzeko paseo erlaxatu batez. Gorlizko hondartzako hondarretik irten, pinudiaren eta itsasertzaren arteko itsas pasealekutik jarraitu, Astondoko duna harriztatuak ikusi eta Kantauri itsasoko haizeari laguntzen utzi. Ibilbide hau ezin hobea da itsaso ondoko goiz lasaietarako edo eguzki-sartzeetarako.

Behe-denboraldian, hondartzaz gehiago gozatu ahal izango duzu zure txakurrarekin, betiere ordutegiak eta udal-arauak errespetatuz.

HONDARTZARA TXAKURRAREKIN SARTZEA

BAINU-DENBORALDITIK KANPO

Urriaren 1etik maiatzaren 31ra: ordu-murrizketarik gabe.

Animaliekin sartzea udal-ordenantzaren arabera araututa dago. Goi-denboraldian (ekainetik irailera), ezin da maskotarik egon hareatzen, baina urteko gainerako egunetan hondartza denei irekitzen zaie. Zaindu beti zure txakurraren kontrola, erabili uhala jende asko ibiltzen den lekuetan eta jaso gorozkiak.



PLANAK

Gune berdeak eta Ibilbide lasaiak

Itsas pasealekua abiapuntu ezin hobe da: itzala, eserlekuak, iturriak eta pinudiko sarbide zuzena. Han pinuen usainaren eta itsasoaren soinuaren artean ibili ahal izango zara, hirigunetik urrundu gabe deskonektatzeko ingurune paregabea.



PLANAK

Ibilbide eta txangoak

Gorlizko hondartzatik, itsaslabar, begiratoki eta basoetako paisaietan barneratzen diren bidexkak abiatzen dira.

Gorlizko itsasargirako ibilbideak Kantauri itsasoaren ikuspegi panoramikoak eskaintzen ditu, eta Askorriagako gotorlekuaren hondakinetarako bidea, berriz, klasiko bat da paseo zorrotzagoa eta fotogenikoagoa nahi dutenentzat.





Dog-friendly garraioak

1

METRO BILBAO

- **Lineak 1 eta 2:** 8 kg-rainoko txakurrak joan daitezke, uhal batetik lotuta eta besoetan, edo transportin itxi baten barruan.
- **Linea 3:** Txakurrek bidaiatu ahal izango dute, haien tamaina edozein dela ere, betiere uhalez lotuta badoaz. Debekatuta dago “arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak” sartzea.



2

BIZKAIBUS

Txakurrek bidaiatzeko aukera izango dute, betiere 8 kg-tik beherako pisua badute eta garraiagailu itxi baten barruan bidaiatzen badute.

3

TAXI

Maskotak tamainaren arabera onartzen ditu; erreserba egitean erabilgarritasuna kontsultatzea gomendatzen da.

- **Taxi Gorliz:** +34 670 417 860
(kontsultatu)



Txakur-dendak + Albaitari-klinikak 🐾

ULUKA DENDA

Denda honetan gure lagun iletsuen ongizateaz arduratzen dira. Hemen behar duzun guztia aurkituko duzu: kalitatezko janaria, osagarriak, jostailuak eta ile-apainketa zerbitzua.

Tel.: 609 90 59 80. Email: ulukadenda@gmail.com

ALBAITARI-KLINIKAKGORLIZ

📍 Iberre Zeharbide Kalea 3 · 48630 Gorliz (Bizkaia)

☎ Tel.: 946 775 094

ALBAITARI-KLINIKAKGURE ALBAITARITZA

📍 Eloisa Artaza Kalea 4A · 48630 Gorliz (Bizkaia)

☎ Tel.: 946 77 71 56



¿Badakizu turismo-bulegoan zure maskotarentzako poltsa erabat doakoak dituzula eskuragarri?

Hemen aurkituko gaituzu: Eloisa Artaza 1, Gorliz.
946 77 43 48.



Tabernak, Jatetxeak eta Ostatuak Pet Friendly 🐾

TERRAZAN ETA BARRUAN MASKOTAK ONARTZEN DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK

ARIN ARIN

BAHIA (aforoaren arabera)

IBERRE

JUBIS

KILIMANJARO

NEW TAVERN

ONDRAGANE

PIPER LODI

PORTALENA


TSUNAMI

Araudiak (Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Legea, ekainaren 30ekoa, etxeko animalien babesteari buruzkoa) baimentzen du txakurrak ostalaritza-establezimenduetako terrazetan egotea.

Gogoratu (zure maskota/txakurra?) beti kontrolpean izatea eta establezimendu bakoitzaren arauak errespetatzea, elkarrekin esperientziaz gozatu ahal izateko.



Gorlizko Kanpina




Kanpinak lur-sailetan txakurrak sartzeko aukera ematen du, eta bungalowak maskotarik gabeko egonaldiatarako gordetzen dira.



Txakurgunea Gorlizen

Barrenetxeako Txakur Parkea leku seguru eta hesitua da, maskotek korrika egin eta askatasunez jolas dezaten diseinatua. San Jose auzoan dago; zehazki, Ortuarten. Ariketa-moduluekin hornituta, ohiko topagune bihurtu da txakurra duten bisitariantzat.





GORLIZ

Pet Friendly